MENDAROKO
UDALA

6/2023 espedientea

GOIKOLA BASERRIRA DOAN LANDABIDEA BIRGAITZEKO LANAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea da Plaza auzoko Goikola baserrira doan landabidea birigaitzeko lanei dagozkien obrak egitea, plegu tekniko honekin eransten den proiektuan jasota daudenak. Proiektu hori Hirubide ingeniaritza eta aholkularitza, SL enpresako Carlos Marauri, Ion Andonegui eta Xabier Otxoa bide, ubide eta portuetako ingeniariek idatzi eta sinatu dute, dokumentu hauek osatzen dute: memoria, aurrekontua, planoak, baldintza teknikoen plegua, hondakinen kudeaketaren azterlana eta osasun eta segurtasun azterlana, besteak beste.

Egin beharreko zereginak eransten den proiektuan deskribatzen dira. Laburbilduz, hauek dira lan nagusiak:

- Lur mugimenduak
- Betelana, material iragazlearekin
- Geotextila eta drainatze hodiak hornitu eta ezartzea
- Hormigoizko zorua
- Hormigoizko areka edo kunetak eraitsi eta berriak egin

2.- KONTRATUAREN ZENBATEKOA.

Goikola baserrira doan landabidea birigaitzeko lanei dagokien aurrekontua da EHUN ETA BI MILA, ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIKA EURO eta HAMAHIRU ZENTIMO (102.751,13 €) BEZ barne.

Beheranzko eurotan egiten diren eskaintzak bakarrik izango dira baliozkoak, administrazio-klausulen pleguko proposamen-ereduari jarraituz aurkeztuko direnak.

Lanak egiten diren bitartean indarrean egongo diren banakako prezioak Administrazioak onartutako proiektuan agertzen direnak izango dira, eta horiei enpresa lizitatzaileak egindako eskaintza ekonomikotik ateratzen den adjudikazio koefizientea ezarriko zaie.

Enpresa lizitatzaileak berak erabakitako prezioetan eskainiko ditu ordainketa osoko oroharreko partidak. Justifikatu beharreko oroharreko partidak, baleude, likidatu egingo dira, eta enpresa lizitatzaileak dokumentazio teknikoan agertzen den kopuru bera eskainiko du.

Eskaintzak aurkezterakoan, enpresa lizitatzaileak kontuan izan beharko du, hondakinen ekoizpenaren eta kudeaketaren arloan indarrean dagoen legediaren arabera, Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Errege Dekretua oinarri hartuta, proiektuaren aurrekontu orokorrari ez bazaio beste kapitulu bat gehitu, obra-unitateen aurrekontuaren prezio unitarioetan sartuta dagoela ulertzen dela.

Edozein obra-unitate behar bezala gauzatzeko eta amaitzeko beharrezkoak diren lan, bitarteko lagungarri eta material guztiak, baita laneko segurtasun- eta osasun-unitate edo -elementu guztiak ere, prezioan sartuta daudela ulertuko da, nahiz eta horiek guztiak ez agertu prezioen deskribapenean edo deskonposizioan.

N.Registro de Entidad Local: 01209014 - Fecha de Inscripción 3 de Mayo de 1988

Bestalde, ez da onartuko obra-materialaren sarbideak, garraioa eta zamalanak gaitzeari dagokion aparteko partidarik, obraren aurrekontu orokorrean sartuta ez balego, obra-unitateen unitate-prezioetan sartuta daudela jotzen baita.

3.- LANAK EGITEKO EPEA.

Kontratazio honen xede diren obrak egiteko epea ZORTZI ASTEKOA izango da, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

4.- LANEN KONTROLA ETA IKUSKAPENA.

Udalak, kanpoko obra zuzendaritza edota udal-zerbitzu teknikoen bidez, ikuskatu, egiaztatu eta zainduko du kontratatutako obra behar bezala egin dadin. Bisitak Obra zuzendaritzak edota Udaleko zerbitzu teknikoek beharrezkotzat jotzen dutenean egingo dira, eta gutxienez astean behin.

Udalak izendatutako teknikariek koordinatuko dituzte obren segurtasuna eta osasuna.

Ziurtagiriak obra zuzendaritzak edota udal-zerbitzu teknikoek onartuko dituzte, eta ez dute enpresa kontratista salbuetsiko ziurtagiri horiek onartzean ikusi ez diren ezkutuko akatsen aurrean dituen erantzukizunetatik.

5.- KOKAPENAREN INGURUKO ETA HONDAKINAK KUDEATZEKO BALDINTZAK.

Lanak landa-bideetan egiten direnez, enpresa kontratistak beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu obrek ohiko funtzionamenduan duten eragina murrizteko. Neurri horiek Mendaroko Udalarekin eta obra zuzendaritzarekin adostuta zehaztuko dira. Enpresa kontratistak bizilagunei edo bide-erabiltzaileei jakinarazi beharko die egin beharreko lanek ohiko zirkulazioari eragingo diotenean.

Enpresa esleipendunak obraren inguruko ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa segurtasun-baldintza nahikoetan mantentzeko betebeharra du. Horretarako, seinale bertikalen edota horizontalen arauzko neurriak hartu beharko ditu, baita informazio-kartelak eta errotuluak ere, betiere oinezkoen, ibilgailuen trafikoaren eta obrako langileen segurtasuna bermatzeko. Era berean, galtzadak eta espaloiak garbituko dira, bide-segurtasuna dela eta.

Jarri beharreko trafiko-seinaleak arauzkoak izango dira, eta obra-eremuaren kokapenera egokituko dira, eraginpeko bide-zatiari dagokionez.

Kontratistak obra identifikatzeko edota obra babesteko neurriak adierazi eta ezartzeko jarri behar dituen kartel eta seinale guztien testua elebiduna izango da, baina euskarazko testua nabarmenduko da gaztelaniazkoaren gainetik.

Edozein kasutan, beharrezko neurri guztiak hartu beharko dira, langileen, oinezkoen eta propietate mugakideen segurtasuna zaintzeko.

Enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu obren kokalekua babesteko, argiztatzeko eta etengabe zaintzeko beharrezkoak diren instalazio guztiak hasieran egiteko eta mantentzeko lanak, indarrean dagoen lege-araudiaren arabera, horiek segurtasunerako edo behar bezala egiteko. Enpresa kontratistak obretan parte hartzen dutenentzat beharrezkoak diren zerbitzu guztiak jarriko ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

N.Registro de Entidad Local: 01209014 - Fecha de Inscripción 3 de Mayo de 1988

EAEko eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren eskakizunak beteko dira.

Enpresa kontratistak obran sortzen diren hondakinen jarraipena eta kontrola egin, sailkatu, pilatu eta kudeatzaile baimenduei entregatu beharko dizkie, eta bere kontura izango dira gastuak. Garbiketa-egoera iraunkor eta egokiak ahalbidetzen duen maiztasunarekin kenduko dira hondakinak.

Obrak amaitu ondoren eta obrak jaso aurretik, enpresa kontratistak kokalekua erabat garbituko du, obra-hondakinak eta obrak egitean erabilitako behin-behineko instalazio guztiak kenduko ditu, eta kokalekua baldintza egokietan utziko du, obra zuzendaritza edota udal-zerbitzu teknikoen iritziz.

6.- MAKINERIA, BITARTEKO LAGUNGARRIAK ETA MATERIALAK.

Enpresa esleipendunak obrak kontratuan adostutako epeetan behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren makineria ekipoak eta bitarteko lagungarriak jarri beharko ditu obretan.

Enpresa kontratista arduratuko da obran erabili beharreko materialak eta obrak gauzatzeko behar den guztia biltzeaz, garraiatzeaz, deskargatzeaz, gordetzeaz eta manipulatzeaz, edozein dela ere materialak biltegiratzeko espazioa.

Jarriko diren materialak obra zuzendaritza edota udal-zerbitzu teknikoek baimendu beharko dituzte. Materialak eta horiek erabiltzeko modua bat etorriko dira kontratuaren dokumentuekin, jardunbide egokirako ohiko arauekin eta obra zuzendaritzaren edo udal-zerbitzu teknikoen jarraibideekin. Enpresa kontratistak behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko die obra zuzendaritzari edota udaleko zerbitzu teknikoei erabili beharreko material guztien jatorria, eta laginak eta beharrezko datuak emango dizkie, bai kalitateari, bai kantitateari dagokienez, saiakuntzak egin edo beste irtenbide batzuk aztertu ahal izateko.

Enpresa kontratistak erregistratutako patente edo prozedura guztiak betetzen direla bermatuko du, eta erregistratutako patente edo prozedura horiek hausteagatik sor daitezkeen erreklamazio guztien erantzukizuna hartuko du.

Material akastun guztiak berehala kenduko dira obren lekutik, eta baldintza egokiak betetzen dituzten beste batzuek ordezkatuko dituzte.

7.- OBRAKO BEHIN BEHINEKO INSTALAZIOAK.

Enpresa kontratistak konpromisoa hartzen du obrak egiteko beharrezkoak diren behin-behineko instalazio guztiak, biltegiak, bitarteko lagungarriak, itxiturak eta abar bere kargura jartzeko eta egiteko. Instalazio horiek obra zuzendaritzak edota udal-zerbitzu teknikoek onartu beharko dituzte.

Obra egiteko behar den ura kontratistaren kontura izango da. Kontratista arduratuko da dagozkion izapideak egiteaz, kanalizazioak eraikitzeaz eta kanonak, hartuneak eta kontsumoa ordaintzeaz, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Obrak egiteko behar den elektrizitatea enpresa kontratistaren kontura izango da, eta hura arduratuko da dagozkion izapide eta baimenez, lineak jartzeaz, transformazio-zentroez, barne-sareaz eta kanonen, hartuneen eta kontsumoaren ordainketaz. Elektrizitatearen barne-

N.Registro de Entidad Local: 01209014 - Fecha de Inscripción 3 de Mayo de 1988

instalazio oro indarreko erregelamendu eta ordenantzen arabera egingo da. Kontratistaren aparatu edo ekipo guztiak lur-hartunearekin eta legez eska daitezkeen prebentzio guztiekin instalatuko dira.

Era berean, enpresa kontratistak bere kontura jarriko du, obrek irauten duten bitartean, bere lanak garatzeko eta obraren inguruan zirkulatzeko behar besteko behin-behineko argiztapena.

8.- OBRAREN KONTROLA.

Enpresa kontratistak, oinarrizko Osasun eta Segurtasun Plana betez, behar diren neurri guztiak hartuko ditu obrako langileen eta hirugarrenen segurtasuna bermatzeko, beharrezko elementuen bidez: kartelak, hesiak, barandak, sareak, eta abar.

Kontratistak bere erakundeko pertsona bat edo pertsona-talde bat izendatuko du, beharrezko segurtasun-neurriak hartzen direla kontrolatzeko. Era berean, enpresa kontratistak obrak zaindu eta babestu beharko ditu obrak jaso arte, eta horretarako behar diren bitartekoak jarri beharko ditu.

9.- OBRA-UNITATEAK GEHITZEA ETA GUTXITZEA.

Eskaintza ekonomikoa enpresa kontratistak proposatutako prezioari egokituko zaio. Egin daitezkeen eta kontratatuen artean agertzen ez diren obra-unitateen prezioak jabetzak finkatuko ditu, obra zuzendaritzak edota udal zerbitzu teknikoek aldez aurretik proposatuta, obrak kontratatzeko unean merkatuko banakako prezioen arabera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 242. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Enpresa kontratistak obra-unitate berriak proposatutako prezioan gauzatzeko betebeharra betetzen ez badu, obra horiek zuzenean kontratatu edo gauzatu ahal izango ditu jabetzak, kontratuaren xede diren obren garapenak hala eskatzen duen unean, eta, hala badagokio, kontratuaren preziotik kenduko du obra-unitateen edo obra-unitateen zati baten edo kontratistak gauzatu gabeko materialen zenbatekoa. Zatika egindako obra-unitateen ordainketa dokumentazio teknikoan ezarritako banakako-prezioen deskonposizioaren arabera egingo da, gauzatu ez diren unitate-zatiak deskontatuta, eta enpresa kontratistaren eskaintzari dagokion baja edo igoera aplikatuta.

Jabetzak proposatzen dituen aldaketen prezioak, hala denean, aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan finkatuko dira. Enpresa kontratistak aldaketa horiek proposatutako prezioan egitea onartzen ez badu, jabetzak, kasuan kasu, obrak zuzenean kontratatu edo gauzatu ahal izango ditu, edo aldaketa horiek egiteko behar diren materialak eskuratu, kontratuaren preziotik kontratak gauzatu gabeko obra-unitateen edo materialen zenbatekoa kenduta.

10.- OBRAREN HARRERA ETA LIKIDAZIOA.

Obren harrera eta behin-behineko eta behin betiko likidazioak gauzatuko dira honako dokumentuen arabera: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 243. Artikulua, indarrean dagoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra eta Baldintza Teknikoen Agiria.

N.Registro de Entidad Local: 01209014 - Fecha de Inscripción 3 de Mayo de 1988

Azken faktura ez da ordainduko, baldin eta aldez aurretik obra zuzendaritzaren edota udal-zerbitzu teknikoen eskura jarri ez bada Hondakinen Kudeaketari buruzko legediak eskatzen duen dokumentazio guztia.

11.- DOKUMENTUEN LEHENTASUN ORDENA.

Proiektu teknikoaren edukia (memoria, baldintza teknikoen agiria, planoak, aurrekontua eta neurketak, hondakinen kudeaketaren azterlana, eta oinarrizko osasun eta segurtasun azterketa barne) guztiz aplikatzekoa da baldintza-agiri honen xede den kontratazioan; hala ere, ez dute eraginik izango aipatutako dokumentuetako xedapenek, agiri honekin eta enpresa esleipendunak sinatu beharreko kontratuarekin bateragarria ez balitz edo harekin kontraesanean balego.

12.- BALDINTZAPEKO KLAUSULA.

Kontratu hau hirugarrenekiko konpromisorik hartu gabe izapidetuko da, eta proiektatutako kontratua formalizatzeko baldintza izango da obrak hasteko behar diren baimen guztiak izatea eta kontratazio hori kontratazio-organoak onartzea.

Mendaron, 2023ko uztailean.

Inge Ugalde Iriondo

Udal arkitekto teknikoa

N.Registro de Entidad Local: 01209014 - Fecha de Inscripción 3 de Mayo de 1988